Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Julian Garciarena Arregi

Berastegi, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Izotzalde auzoko Elgorreaga baserrian jaio zen 1929an. Ama bertakoa zuen eta aita auzo bereko Elaunde azpitik etorria. 10 anai-arreba ziren, nahiz eta bat umetan hil zitzaien. Zazpi urterekin hasi zen eskolan plazan eta 11-12 urtera arte ibili zen. Gero gau-eskolan ere ibili zen don Victor Labaienekin. Gaztetan kontrabandoan ibilia da. 27 urterekin Arrosi paper-fabrikan hasi zen lanean eta 17 urte egin zituen bertan. Fabrika itxi zenean Leitzako lantegira bidali zuten. Zazpi urteren ostean, Leitzatik Berrobiko lantegira bidali zuten, jendea behar zelako. Bertan egin zuen lan 59 urterekin erretiratu zen arte.

Zintak

BRS-012

- **Proiektua**: Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2009-06-16
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Diaz, Josu

BRS-013

- **Proiektua**: Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2009-06-16
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: MiniDV

Pasarteak

1. Bederatzi senide eta bi ama

- **Erref**: BRS-012/002
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:01:02. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Baserrian jaio zen, eta lan asko egin behar izan zuen. Gerra hasi zenean, zazpi urte zituen. Bederatzi senide ziren, baina bi amatakoak. Bere amaren familiari buruz hitz egiten du, eta aitaren lehenengo emaztea nola hil zen kontatzen du. Ama eta aita nola ezagutu ziren azaltzen du. Gaur egun haietatik zein bizi diren aipatzen du.

Transkripzioa
- Baserrin jaiotakua mutikotatik ya lana tokatuko zitzaizun, ez?
- Lana erabat mutikotiken lana izaten gendun. Garai hartan pobre giñen, denak pobre. Nik zazpi urte nittula hasi zan gerra, bai, ta bukatu hamar in nittunen, bai, hamar iña nittun bukatutakon, ta gu’re beatzi senide bagiñen, hamar giñen baiño ttikitan hil zan bat, bai, zazpi hillebeteko hil zitzagun bat, bai. Ez dakit ze gaitz eo… ez daukat gogoan baiño, bai, beatzi behintzat aurrera atera giñen, baiño bat, zaharrena, aurreneko amana, geo gu berriz… Ama zan etxekoa, nee ama zan etxe hontakoa, zien hoik hiru ahizpe ta anaia gure ama-ta, ta anaia fraile joan, enteintzen dezu? Anaia fraile joan, ta geo, anaia fraile jon zanen alaba zaharrena etxea ezkondu, bai, ta aitte Elaunde Azpitik etorri zan, baserri Elaunde Azpi, bai, Izotzalde da hoi´re e? Elaunde Azpitik etorri zan nere aitte. Ta aurreneko semez alabak o aurreneko alabakin ezkondua ta aurreneko alaba izandu ta akordatu bate akordatu gabe ohian odolustua andrea. Familia etxen izandu hemen, garai haitan etxen, ta neskatoa urtetako o ordutako neskatoa geratu ta andrea hil zitzaion, bai. Geo esaten zuen nee ama Villafrancan neskame emen zegon hemezortzi urtekin, ta nee aman aitte biudoa zegon hemen, ta geo suhie Elaunde Azpitik etorri ta biudo geatu berriz, aurreneko andrea hilda, ta geo nee ama hemen zeon Villafrancan neskame, ta hue ekarriazi etxea honera ta ezkondu.
- Orduan alargunduta gelditu zanean zure aita ahizpakin ezkondu zan.
- Ahizpakin bai, koiñata harentzako, koiñatakin bai, lehengo ahizpen, bai bai koiñatakin ezkondu, bai. Ta geo koiñatakin beatzi izandu, hamargarrena aurreneko amana, baiño bat ttikitan hille deu, bai, aspaldi hille hau’e, ttikitan, bai, baiño beatzi, ta beatzitatik gaude bizik hiru hillek dauzkeu: bi arreba ta anaia gazteena...

2. Emaztea ezagutu eta Berastegin jarri bizitzen

- **Erref**: BRS-012/004
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:06:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Emaztea Leitzakoa du. Emaztearen ahizpei buruz hitz egiten du. Ume bat izan, eta galdu egin zuten, eta iloba hazi zuten etxean.

Transkripzioa
- Andrea ere Berastegikoa da ezta?
- Ez, Leitzekoa
- A, Leitzekoa, klaro, klaro, honen Se, Se… zelan da? Seberiana… Zelan da? Zure koiñata? Se…

- Xerapia. Hau Juanita, hau Juanita.
- Xerapian ahizpa da.
- Bai, hau Juanita ta bestea Inaxia. Hiru ahizpe etorri zien Berastegira. Nik ekarri nun aurrena, ta gero honea etortzen zien da hemen besten batzuei gustatu ta hiru ahizpe etorri zien bai, bai. Ta nik Leitzeko baserri batetik ekarri nun, ta geo famili bidean izandu gendun ta galdu ein gendun, gehio ez gendun izandu. Ta geo illoba etxen hazia izaten gendun hemen anaia gazteenana, oain nausi daukeuna, ta horrek'e Leitzetik ekarri zun beste bi etxekoandre Leitzeko […] bai, bai, bai.

3. Eskolako oroitzapenak

- **Erref**: BRS-012/005
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ganadu asko izaten zuten txikia zenean. Eskolan, zazpi urterekin hasi zen. Baserrian zer lan egiten zituen kontatzen du. Baserrian lan egiteagatik, eskola asko galdu zuen, eta 11 urterako utzi eskola utzi egin zuen. Gerora, gau-eskolan ikasi zuen. Han izandako maisu bati buruz hitz egiten du. Plazako eskolan ikasi zuen, mutilak eta neskak bereizita. Gerra denboran ere eskolara joaten ziren. Maisu gaiztoa izan zuen garai hartan.

Transkripzioa
- Eta zu mutikoa ziñanean hemen ganadua ta eukiko zenduen etxean, ez?
- Bai, bai, ganaue garai haietan ganau asko eukitzen gendun: sei-zazpi bat behi, ehun arditik gora, ehun arditik gora, beste dozena erdi bat behor. Hoik hoik ganau hoik izaten giñun; geo ikuillun zerrik ta oilok ta, hoik'e bai, bai, ardik
- Konejurik eta?
- Koneju… ordun ez, oain bai izaten dittugu, ordun ez, oain bai bauzkegu. Ta geo dirurik ez zan ta, eskolan'e berandu samar hasi zazpi urtekin eo hasi nintzen, ta geo primabera etortzen zan ta itzulera behien aurren soroa banetzen behien aurrea batzutan; geo ardizai joateko oain alanbreakin da ixten ditteu ixturekin itten deu, baiño ordun ez alanbre…dirurik ez zan ta. Ta ardizai ta, nik eskola oso pobrea hartu nun, oso pobrea zeatu nintzen. Ya hamaika-hamabi urtekin geratu nintzen gaiñea, ordun aixa geatzen zan eskolatik, baiño geo gabeko eskola esaten giñun, gauen bi ordu sartzen nittun, hemen sartzen giñun hemen Oiñetaberriko apaiz batekin ikasi nun nik eskola, Don Victor izena zun, Labaien Don Victor Labaien. Haretxekintxe gabeko eskola nik eskola pixko bat hartu nun, bai, gauen. Goor jartzen zitzagun e! Harek ondo hitz eingo zizun, zeatuko zizun baiño eskolan ari giñanen gogor itten zigun, bai gogor ta hantxe ikasi nun nik eskola, bai hantxe, bai…
- Orduan lelengo zazpi urtekin eta plazan ibiliko ziñan, ez?
- Bai plazan aiuntamenduko goi hortan: neskak alde batetik ta gizonezkoak, bai mutillek, beste aldetik ibiltzen giñen.
- Eta zuk, klaro, zazpi urtekin hasi ta gerra etorriko zan segituan, ta gerra denboran ere eskolara joaten ziñeten?
- Bai, bai, gerra denboran'e joaten giñen; maisu hankamotz bat gendun.

Gaiztoa e! Bai, garbi esango det, gaiztoa, geok'e hala izango giñen baiña gaiztoa. Hola makille luxe bat ibiltzen zun mehe bat oholan giseko ohola zera bat, ta behatzak hola jarrita deskuidatzen baziñen tas-tas [hotan] eman, bai.

4. Erdara eskolan eta gaur egun

- **Erref**: BRS-012/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan erdaraz egin behar izaten zuen, baina ez zekien erdararik. Orain gehixeago hitz egiten du erdaraz. 49 urte daramatza ezkonduta emaztearekin, baina hark hobeto daki erdaraz

Transkripzioa
- Eta eskolan erderaz ein beharko zenduen?
- Erderaz, baiño nik erdera, erderik ez eskolik eta ez erderik ikasi.
- Klaro.
- Ordun hitz eitten, euskeraz hitz eitten ahal zan gutxina, ta hala're iten gendun ikasi; gutxi, eskola're gutxi joanda.
- Zuek eskolara hasi arte erderaz, bueno, tutik ez zenduen...
- Tutik ez, tutik ez guk erdereik, tutik'e. Oan pixko bat noiz o noiz gehixeo oain eskola. […] geratu ezkero eskola bat beharren jarri ta erdera pixka bat gehixeo, baiño nik erdera ere motxa, oso motxa; andreak'e erderaz ondo daki ta moldatzen gea. Berrogeita beatzi urte badittegu ezkondurik, sesentan ezkondu giñen, bai, otsaillen hamazazpin inda gaude berrogeita beatzi urte. Ta horrek, horrek'e nere gixe nik aiñe urte eskola motz xamarra du horrek'e, baiño erdera ona, erderaz leitzen, erderaz garai haitan'e leitzen erdera izan itten baitzan.

5. Eskolan ikasitakoa

- **Erref**: BRS-012/008
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:10:52. **Bukatu**: 00:12:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Eskolako maisu on bati buruz hitz egiten du: nongoa zen, non bizi zen... Zer ikasten zuten azaltzen du. Gau-eskolan gehixeago ikasi zuen. Ez zuten libururik erabiltzen. Etengabe joanez gero eskolara, ikasteko aukera bazenuen. Baina etxean lan egin behar izanez gero, atzean gelditzen zinen.

Transkripzioa
- Eta orduan gero, hori, gau eskolan don Victorrekin ibili ziñan…
- Bai, Don Victor, bai, Labaien, harekin…

- Nun, hemen Berastegin bertan ematen zun?
- Bai, hor kalen ematen ziun, hor kalen bizitzen zan hor etxe baten bizitzen...
- Bertakoa zan?
- Bai, hemengo semea zan, bai. Hoi Itziarren ta hoitan ibili zan baiño gero honera etorrita zegon, bai, hemen zegon, bai, bertako semea.
- Eta ze, ze ikasten zenduen?
- Ikasi, ikasi jartzen zigun: “sumar, restar ta dividir”, hoi, hoi behintzat aurrena ikasten, hoik zeatzen ibiltzen giñen, bai.
- Gau-eskolan igual pixkat gehixeo ikasiko zenduten ez?
- Ikasi nun hantxe ikasi nun nik pixko bat, bai. Gaiñeakuan, “sumar ta restar ta dividir” hoi hoik gue eskolak hoik zian garai hartan, bai.
- Bestela hori, libururik eta erabiltzen zendun?
- Ez, ez, ez. Han kuadernoak eo bai, baiño danak eskolan han uzten giñun e?
- Berak pizarran...?
- Bakoitzak bere... Bai, pizarran, pizarra handi baten berak jartzen zittun ta guk handiken zeatu, bai, bai, handiken.
- Ta bestela ze gehiago: geografia ta holako maparik eta...
- Garai haitan, guk behintzat ez. Guk ez. Oain, eskola pixko bat hartu zuenak, eskola pixko bat hartu zuenak, erabat joaten zana, beti eskola pixko bat bai hartu, erabat. Baiño zu etxen zortzi eunen etxen eon ardizai o behien aurren eo soroa banetzen ta ibiltzeko ta ibili ta geo joateko’re gogo gutxio, lagunek aurrera joanak, ta hor diferenteixo izaten zan, bai.

6. Gau-eskolan serio ikasten

- **Erref**: BRS-012/009
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:12:38. **Bukatu**: 00:13:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Gau-eskolan gehiago ikasi zuen, egunero joaten ziren, eta kontzientziatuago zeuden. Gau-eskola ordaindu egiten zen. Baina plazako eskola publikoa zen.

Transkripzioa
- Gau-eskolan ere, bueno, huts asko itten zendun ala hori gehiao mutiko gazteagotan, ala?
- Ez, ez, ez, gabeko eskolan, gabeko esko... gehio ikasi, burue ere gehixeo ordun zeatu, bai...
- Eta beti joango ziñan ez?
- Bai, eunero, eunero joaten giñen, ordun launbeten e bai e! Ordun launbeten jairik ez zan egitten e! Ordun launbeten eamanazten giñun.
- Ta gaueko eskola hori ordaindu eitxen zan?
- Bai, zenbat ez dauket gogoan, ta ez dakit, ama ibiltzen zan ama, ta ez dizut esango zenbat, baiño ordain... apaiza pagatu eitten gendun, bai, paatu.
- Bestea publikoa izango zan plazakua, ez?
- Bai, plazakoa bai, plazakoa bai, publikoa, plazakoa bai.

7. Jolas-orduak eta jolasak

- **Erref**: BRS-012/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:13:21. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Jolas-orduan pilotarekin jolasten zuten. Pilotak erosi egiten zituzten.

8. Txikatako jolasak

- **Erref**: BRS-012/012
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:16:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Futbolean ez ziren ibiltzen. Baloirik ere ez zegoen orduan. Beste jolas batzuetara ere jolasten zuten: gordeketan, tornikean... Tornikea nola zen, eta taldeak nola egiten zituzten azaltzen du. Jolasetako arauak aipatzen ditu. Kaniketan ere ibiltzen ziren.

9. Pilota

- **Erref**: BRS-012/013
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:16:59. **Bukatu**: 00:19:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Berastegin ez da pilotaririk atera, baina baziren ondo egiten zutenak pilotan. Garai hartan frontoirik ere ez zegoen Berastegin, baina Leitza eta Elduainen bai, ordea. Pilotari ezagunak aipatzen ditu. Txapelketak kontu berria dira. Partiduak beraiek antolatzen zituzten. Ez du inoiz frontoietara joateko ohiturarik izan.

10. Estraperloa

- **Erref**: BRS-012/014
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:19:22. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Estraperloan ere ibili izan ziren. Berastegin kontrabandista ugari izan ziren. Baina lan gogorra dela esaten du. Merkantzia nola lortu eta banatzen zuten azaltzen du. Diru pixka bat egin zuen horrela. Estraperloan zer eramaten zuten azaltzen du.

11. Estraperloko anekdota bat

- **Erref**: BRS-012/015
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:21:40. **Bukatu**: 00:22:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Behin estraperloko erloju batekin lagun bati gertatutakoa kontatzen du.

12. Estraperloko merkantzia gainean

- **Erref**: BRS-012/016
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:22:37. **Bukatu**: 00:23:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Merkantzia gainean nola eramaten zuten azaltzen du. Motxila, sokarekin lotuta, eta makila erabiltzen zuten. Bidaia bakoitzean 25 kilo eramaten zituzten, baina asko nekatzen zuen.

13. Estraperloko bidea

- **Erref**: BRS-012/017
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:23:52. **Bukatu**: 00:25:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Berastegi ingurua ondo ezagutzen du. Estraperloan zer bide egiten zuten azaltzen du. Leku batzuk besteak baino arriskutsuagoak ziren, guardiak egoten baitziren.

14. Polizia eta nagusiak estraperloan

- **Erref**: BRS-012/018
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:25:18. **Bukatu**: 00:27:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Mikelete eta guardia zibilei buruz hitz egiten du. Kontrabandisten artean ez zegoen lehiarik. Nagusiak maneiatzen zuen dirua, eta zintzo ordaintzen zien lana.

15. Merkantzia babesteko moduak

- **Erref**: BRS-012/019
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:27:16. **Bukatu**: 00:27:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Ardorik ez zuten eramaten kontrabandoan. Merkantzia ondo bilduta eramaten zuten apur ez zedin.

16. Estraperloan poliziarengandik ihesi

- **Erref**: BRS-012/020
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:27:47. **Bukatu**: 00:29:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Mikeleteak eta guardia zibilak non egoten ziren azaltzen du. Inoiz ez zuten arazorik izan guardia zibilarekin, baina beste batzuek bai. Arriskurik ez izateko, biderik zailena hartu behar izaten zuten.

17. Estraperloko bideko auzoak eta minak

- **Erref**: BRS-012/021
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:29:02. **Bukatu**: 00:30:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Plaza "arriskutsu" horietako batean, trena ez zebilen beraiek estraperloan zebiltzanerako. Inguruko auzo batzuk aipatzen ditu, eta mina batzuk zeudela azaltzen du. Han kanpotarrek egiten zuten lan gehienbat. Hala ere, mina horiek gerra denboran itxi ziren.

18. Trena Berastegin

- **Erref**: BRS-012/022
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:30:41. **Bukatu**: 00:31:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Trena ezagutu zuen, eta oso mantso joaten zen. Iruñera joaten zen tren hori. Jendea ere ibiltzen zen bertan. Tren zaharra zen. Eurite batek trenbideko errailak eraman zuen, eta orduan kendu zuten zerbitzu hura.

19. Kontrabandoa eta gero, fabrikara

- **Erref**: BRS-012/024
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:33:29. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Kontrabandoan urte t'erdi inguru egin zuen. Hori utzitakoan, Arrosi fabrikan sartu zen lanean 27 urte zituela. Han 17 urte eman zituen.

20. Nagusi berriak fabrikan

- **Erref**: BRS-012/025
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:37:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Gero fabrika saldu egin zutenez, itxi, eta Leitzara eraman zituzten lanera. Jabe beraren beste lantegi batera bidali zuten.

21. Jubilatzeko gorabeherak

- **Erref**: BRS-012/026
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:37:15. **Bukatu**: 00:39:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
59 urterekin jubilatu egin zen. Jubilatzeko zer komeria izan zituen azaltzen du. Eta pozik bizi da jubilatu denetik.

22. Artzain-lanetan

- **Erref**: BRS-012/027
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:39:34. **Bukatu**: 00:41:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Txikitan artzain ibiltzen ziren anai-arrebak, gehienbat anaia bat. Lehen mendian izaten zituzten ardiak. Borda bat zeukaten mendian, eta han egiten zuten lo askotan, eguraldi txarra bazegoen.

23. Garraiobideen bilakaera

- **Erref**: BRS-012/028
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:41:46. **Bukatu**: 00:42:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Gaztetan bizikletak bakarrik zeuden. Gerora, motorrak etorri ziren. Eta gerora, autoak. Baina garai batean, dena oinez.

24. Auzolanak

- **Erref**: BRS-012/029
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:42:27. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Auzolanak zer egiten zituzten bideak konpontzeko. Lehen auzolan ugari egiten ziren, elkarri laguntzeko borondate handiagoa baitzegoen lehen.

25. Garia eta artoaren prozesua

- **Erref**: BRS-012/030
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:43:50. **Bukatu**: 00:46:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Garia norberak jotzen zuen. Nola jotzen zuten garia deskribatzen du. Garia eta artoaren prozesuak azaltzen ditu. Lekuaren arabera, lehenago edo beranduago heltzen da garia. Igitaiarekin ebakitzen zen garia, lehortzen uzten zuten, eta ganbarara eramaten zuten.

26. Gariaren prozesuko makinak

- **Erref**: BRS-012/031
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:46:46. **Bukatu**: 00:48:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Harria egin zuen urte batean, garia guztiz okertu zen. Urte hartan asmatu zuten garia batzeko makina. Garia garbitzeko makinak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

27. Garia, irina eta errotak

- **Erref**: BRS-012/032
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:48:06. **Bukatu**: 00:49:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari alea lehortutakoan, zakuetan eta arkan gordetzen zuten. Eta gero errotara eramaten zuten pixkanaka-pixkanaka, irina egiteko. Errotak non zeuden azaltzen du. Beraiek, hala ere, Aresora joaten ziren, finagoa izaten baitzen hango errotatik lortutako irina.

28. Ardo bila Aresora

- **Erref**: BRS-012/033
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:49:18. **Bukatu**: 00:50:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Ardo bila ere Aresora joaten zen Berastegiko jendea. Nafarroatik ardoa pasatzeko, "sitxeak" ordaindu behar izaten ziren, eta mendiz etortzen ziren ordaindu behar ez izateko.

29. Ikatza eta karea

- **Erref**: BRS-012/035
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:50:25. **Bukatu**: 00:53:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Basoan gutxi ibilitakoa da, etxeko seme zaharra izanda, etxean lan egitea nahi izaten baitzuten gurasoek. Mendian ikatza eta karea egiten ziren. Karobia non zegoen, eta zer lan egoten ziren han azaltzen du. Harriak eta egurrak nola ekartzen zituzten aipatzen du.

30. Karobiaren funtzionamendua

- **Erref**: BRS-012/036
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:53:16. **Bukatu**: 00:55:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karobiak nola erabiltzen zuten azaltzen du.

31. Karearen erabilerak

- **Erref**: BRS-012/037
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:55:48. **Bukatu**: 00:56:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karearekin zer egiten zen azaltzen du. Soroarentzat ona da karea, eta gaur egun karea eginda erosten da. Kareak lurrari laguntzen dio. Karea morterotarako ere erabiltzen zen.

32. Osaba gotzaina

- **Erref**: BRS-012/039
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:56:47. **Bukatu**: 00:58:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Jose Mari Arregi Iparragirre bere gotzaina zen. Urte asko eman zituen Txinan. Han egin zuten gotzain. Argazkiak eta gutunak bidaltzen zizkion Jose Julianen amari.

33. Aitonak baserria erosi zuenekoa

- **Erref**: BRS-012/041
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:58:25. **Bukatu**: 01:01:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Aitonak baserria erosteko izan zituen gorabeherak kontatzen ditu. Baserri horren jabea Amerikakoa zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com